

SECCION AMENA.

ZIRI-BERSOAK.— EPIGRAMAS

1.—Asto kontuak.

Ikusirik pasatzen	Semeak bereala
Astoak ugari,	Erantzun du: «¡Ené
Aita batek, algaraz	Oiek nere anaiak!
Dio semeari:	Ez nuen nik usté
«Begirakiok Pello,	Berorrek zituela
Ire anaiari.»	Orrenbeste seme.»

2.— Madalen arrazoia

Madalen ezkondu zan	Ama suyaren kontra
Bersolai batekin;	Pozoitua dago,
Zortzi garren ilean	Ta alabak esaten du:
Poz aundiarekin,	«¿Nola geroago,
Eder eta galanta	Zortzikoak egiten
Seme bat du egin.	Oitua badago?»

SERAFIN BAROJA.

ASKANTZAK.

I.^{ko} Somaketarena: A-MI-LLA.

I.^{ko} Itanasiarea: ZULUA.

II.^{garren} SOMAKETA EDO ASMAKETA.

Beti bi alditan	<i>Biya</i> ta <i>iruba</i>
Egingo du <i>bata</i>	Dago Amerikan,
Erlejubak jotzen	Paraje on bat da
Badu ordubata;	Ez dala gerrikan.
<i>Biya</i> eta <i>bata</i>	Da nere guziya
Berak du egingo	Guchik ikusiya,
Zergatik makinak	Kabiyan jayo ta
Dion eragingo.	Mendiyan aziya.
Oeri ondoren	Izena ez beste
<i>Iruba</i> parata,	Dena det argitu,
Erlejubak duben	Ori bakarrik zuk
Chisme polit bat da.	Beazu somatu.

R, A.

ASKANTZA *urrengo lumero edo liburuchuan.*